



Erakunde antolatzaileek, bere eskuduntzaren barne arte zinematografiko eta ikus-entzunezkoen sustapena helburu izanik, Basauri – Bizkaiko VI. Nazioarteko Animazio Zinemaldia, ANIMABASAURI6 - ANIMABASQUE, antolatzen dute – ikus-entzunezko animazioa sustatu eta ezagutzera emateko asmoa dela medio. Sortzen den eremuan animazio klasikoa zein azken joerak erakusten dituzten animazioak aurkeztu daitezke eta animazioaren eremuan egindako azken lanen, autore ezberdinen lanen ibilbidea eta herrialde ezberdinetan egindako animazioaren berrikusketak egingo dira.

Sektorearen profesionalen elkargunea izatea espero dugu, non egileek beraien lanak aurkeztu ahal izango dituzte eta proiektu berrien inspirazioa sortu eta kolaborazio berrien sorrera suertatu dezaken lekua izatea espero dugu; azken finean artista eta ikusleen arteko hurbiltze bat.

Basauri – Bizkaiko VI. Nazioarteko Animazio Zinemaldia **2010ko apirilaren 23tik 30era** ospatuko da Basaurin, Social Antzokia gune nagusia duelarik. Basauriko bertako beste gune batzuetan, Bilbon, Leioan, Erandion eta Getxon ere izan daitezke bestelako emanaldi edota erakustaldiak ere.

Zinemaldia, Basauriko Udalak babesten du, Bizkaiko Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Institutuko kultura departamentuetako, BBKko eta beste hainbat

erakunde publiko eta pribatuen laguntzarekin.

I. ZINEMALDIAREN SAILAK

Basauri – Bizkaiko Nazioarteko Animazio Zinemaldiak hurrengo sail hauetaz osatzen da:

a) Sail Ofiziala (Lehiakorra)

Antolatzaileek bi maila ezarri dituzte:

- i) Irudiz irudi eta edozein animaziozko teknikaren bidez egindako animaziozko luzemetraiak. Produkzio data **2008ko urtarrilaren 1etik aurrera** duten film guztiek parte har dezakete. Proiektzio formatua **35mm**koa izango da; kasu berezietan Antolatzaileek BETACAM formatuan onartu ditzakete filmak. Gutxienezko iraupena 60 minutukoa izango da. Sail honetan, filmak lehiaketan edo lehiaketaz kanpo aurkeztu daitezke.
- ii) Irudiz irudi eta edozein animaziozko teknikaren bidez egindako animaziozko laburmetraiak. Produkzio data **2008ko urtarrilaren 1etik aurrera** duten film guztiek parte har dezakete. Proiektzio formatua **35mm**koa izango da. Gehienezko iraupena 60 minutukoa izango da. Sail honetan, film guztiak lehiaketan izango dira.

b) Karratu Saila (Lehiakorra)

Irudiz irudi eta edozein teknikaren bidez egindako animaziozko laburmetraiak. Produkzio data **2008ko urtarrilaren 1etik aurrera** duten film guztiek parte har dezakete. Proiekzio formatua **DVDa** izango da. Gehienezko iraupena 60 minutukoa izango da. Sail honetan, film guztiak lehiaketan izango dira.

c) Telesailak

Gehienez 30 minutuko iraupena dituzten eta irudiz irudi eta edozein teknikaren bidez egindako telebista sailen kapituluak. Produkzio data **2008ko urtarrilaren 1etik aurrera** duten guztiek parte har dezakete. Proiekzio formatua **DVDa** izango da.

d) Herrialde gonbidatua

Herrialde zehatz baten lanen emanaldiak; luzemetraiak zein laburmetraiak. Proiekzio formatuak 35mmkoa eta DVDa izango dira; Antolatzaileek, beste formaturen bat onartu dezakete beharrezkoa ikusten badute. Era berean, emanaldiez aparte beste aktibiteren bat antolatzeko aukera egongo da (hitzaldiak, erakusketak...) Antolatzaileek onartu eta gero.

e) Atzera begirako emanaldiak

Animazioaren munduko zuzendari, egile eta produktore bat edo biren lanen atzera begirako emanaldiak. Proiekzio formatuak 35mmkoa eta DVDa izango dira. Antolatzaileek, beste formaturen bat onartu dezakete beharrezkoa ikusten badute. Era berean, emanaldiez aparte beste aktibiteren bat antolatzeko aukera egongo da (hitzaldiak, erakusketak...) Antolatzaileek onartu eta gero.

f) Animaziozko Goyak

Goya sarien azken edizioan hautatuak izan diren labor eta luzemetraien emanaldiak.

g) Animazioa ikasgeletan

Bizkaiko ikastola eta eskoletako haur eta gaztetxoei zuzendutako goizeko emanaldiak.

h) Erakusketak

Animazio filmekin, ekoizpen etxeekin edo animazio munduarekin erlazio zuzena duten elementuen erakusketak egingo dira (gailuak, jostailuak, *storyboard*-ak, argitaragabeko irudiak, maketak, etab.).

i) Zine maratonia

Gutxienez, oraingo bi film proiektatuko dira bata bestearen ondoren asteburuan. Eskuarki, gauerdian emango dira. Antolatzaileek, iraupen berdineko beste aktibiteren bat antolatu dezakete: laburmetraien emanaldia, kontzertua edo bestelakoak.

j) Zinema eskolak

Zenbait animazio eskolen laburmetrai berrien emanaldiak. Laburmetrai hauek, Sail Ofizialean edo Karratu Sailean parte hartu dezakete ere. Aukeraketa bakoitzeko iraupena gutxienezko 30 minutukoa izango da.

k) Zine tailerrak

Haur, gaztetxo eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako tailerrak.

Jasoko diren lan kopuru eta hauen ezaugarriak kontutan hartuta, beste sail batzuk sortzea, sail bat lehiaketaz kanpo ustea edo sail lehiakor batean bihurtzea, edota sail bat ezabatzea ere Antolatzaileen eskuetan egongo da. Hauek hartzen dituzten erabakiak apelazienak izango dira.

II. IZENA EMATEKO BALDINTZAK

a) Lanak jatorrizko hizkuntzan eta gaztelaniazko azpitoluekin aurkeztuko dira. Proiektatuko den filmaren kopia azpitolurik ez izatekotan, elkarrizketen zerrenda erantsi beharko da (gaztelera edo ingelesez) Zinemaldiak azpitolu digitalak egin ditzan. Karratu Sailean berriz, kopiak jatorrizko hizkuntzan proiektatuko dira DVDak gaztelaniazko azpitoluak dituelaren itxaropenarekin.

b) Sail Ofizialean lehiaketara doazen luzemetriak, zinemaldian proiektatu baino lehen ezin izango dute espainiar merkatuan estreinatuak izan ezta Euskal Autonomi Erkidego edo Nafarroako Foru Erkidegoko inolako zinema aste, zinemaldi edo proiektzio publikoetan proiektatuak izan.

c) Lehiaketara aurkezten den lan bakoitzak film zinta berezian aurkeztu beharko da inskripzio agiri propioarekin batera.

d) Sail Ofizialera (luzemetriak eta laburmetriak) aurkezten diren filmak, **2008ko urtarrilaren 1aren ostean** ekoiztuak izan behar dira. Hautatuak direnak, **35mmko formatuan soilik** hartuko dira. Luzemetriaren kasuan eta Zinemaldiko Antolatzaileek onartzen dutenean BETACAM formatuan proiektatuak izan ahalko dira.

e) Karratu Sailean (DVD formatuko laburmetriak) aurkezten diren filmak, **2008ko urtarrilaren 1aren ostean** ekoiztuak izan behar dira. Hautatuak direnak, **DVD formatuan soilik** hartuko dira.

III. IZEN EMATEA

Basauri – Bizkaiko VI. Nazioarteko Animazio Zinemaldian izena ematea dohainik da.

Sail Ofizialean, 35mmko filmak onartuko dira soilik (luzemetrietan BETACAM onartuko da Antolatzaileek horrela erabakitzen dutenean); Karratu Sailean berriz, DVDak, eta inoiz ez dira onartuko bestelako formatuak (BETACAM, VHS...). Sail Ofizialerako hautaturen batek 35mmko kopiarik bidali ezin izango balu (edo BETACAM Zinemaldiak onartu baldin badu), lehiaketatik kanpo geratuko litzateke berehala eta Zinemaldiak bere DVDA proiektatzeko eskubidea eta aukera gordeko du.

Izen ematea, filmaren DVD kopia bat eta inskripzio agiria (nahitaezkoa) osorik beteta bidaliz egingo da. Inskripzio orrian, filma zein Sailera aurkeztu nahi den argi agertu behar da.

DVD eta inskripzio agiriarekin batera honako

hau bidaliko da (CD-ROMean ahal bada):

- o filmaren 2 irudi
- o sinopsia
- o elkarrizketa zerrenda
- o beste zinemaldietan parte hartzea

Zuzendariaren biografia, filmografia eta argazkia ere erantsi beharko da.

Irudiak, ahal denean, JPEG edo TIFF formatuan bidaliko dira, 300dpi-ko gutxienezko bereizmenarekin eta 10zm x 15zmko neurriarekin. Dokumentuak berriz, RTF edo DOC formatuan bidaliko dira.

Material GUZTIA inskripzio orriarekin eta DVDarekin batera **2010ko urtarrilaren 15a baino lehen** jaso beharko du Zinemaldiak bere bulegoetan. Bestela, filma ez hautagaitzat jo daiteke.

Mesedez, materiala, hurrengo helbidera bidali:

ANIMABASAURI6 – ANIMABASQUE Basauri – Bizkaiko Nazioarteko Animazio Zinemaldia

Uribitarte kalea, 8 - 4º esk. B
48001 BILBAO – Bizkaia

IV. HAUTAKETA

Eremuaren profesional eta antolaketa taldearen kideek osaturiko Hautaketa Batzorde batek, jasotako film guztien artean Zinemaldian parte hartuko duten lanak hautatuko ditu.

Hautaketa Batzordeak hartzen dituen erabakiak apelaezinak dira eta **2010ko urtarrilaren 29tik aurrera** komunikatu egingo dira (edo lehenago Antolatzaileek horrela erabakitzen badute) bai Zinemaldiaren web gunean (www.animabasauri.com) eta bai posta elektronikoen bidez ere.

Sail Ofizialerako hautatuak diren filmak, **2010ko apirilaren 9a baino lehen** 35mm formatuan eduki behar ditu Zinemaldiak; salbuespenezko kasuetan eta Antolatzaileek onartu eta gero BETACAM formatuan. Kopia bakoitza kutxa

egokian bidaliko da eta filmaren izenburua eta harpidedunaren izen-abizenak eta helbidea kuxan argi eta garbi agertu behar da.

Atzerritik heldutako material guztia hurrengo etiketa izango du kuxan: **“Sin Valor Comercial / No Commercial Value – Para usos culturales únicamente / For cultural purposes ONLY”**. Aduanarako aitortenik behar izanez gero, gehienezko \$5ko (bost dolarko) balioa aitortuko da. Aitortutako balio altuagoko paketeak zergen pean erori daitezke eta hauek Zinemaldiak **EZ** ditu ordainduko.

Karratu Sailean, izena ematean jasotako DVDA erabiliko da proiektiorako baliozkoa baldin bada. Lan kopia izanez edo *timecode*-rik edukiz gero, parte hartzaileak proiektatzeko kopia egokia bidali beharko du.

Aurrez antolatutako egutegi baten arabera proiektatuko ditu lanak Zinemaldiak. Honek, hauek proiektatzeko egile eta ekoizleen baimena izango du izena ematen duten momentutik.

Partaideek Zinemaldia baimentzen dute film atalak eta argazkiak prentsan edo beste medio baten publizitate moduan erabiltzeko, baita Zinemaldiaren katalogoa egiteko eta hau sustatzeko ere. Hau dela eta, hautaturiko filmen promoziorako, Zinemaldiaren zuzendaritzara audioak, irudiak edota *trailerrak* ere bidaltzea iradokitzen da, hauek Zinemaldiaren estaldura egiten duten telebista eta komunikabideetara bidaltzeko.

V. SARIAK

Lehiaketaren barne dauden Sailetara hautatutako filmeen artean, honako sari hauek emango dira:

Epaimahaiaren Saria Luzemetrai Onenari (Sail Ofiziala). 8.000€-ko esku-diru saria, Toon Boom software paketea eta garaikurra Espainian erakusketa eskubideak dituen enpresa banatzaile edo inportatzaileari. Espainian banatzaile edo inportatzailearik ez izatekotan gerokotasunez emango zaio filmaren

inskripzioa egin duen ekoizpen etxe edo banatzaileari.

Epaimahaiaren Aipamen Berezia Sail Ofizialeko Luzemetraietan. Garaikurra eta Toon Boom software paketea filmaren inskripzioa egin duen enpresa, ekoizpen etxe edo banatzaile / inportatzaileari.

Epaimahaiaren Saria Laburmetrai Onenari (Sail Ofiziala). 1.000€-ko esku-diru saria, Toon Boom software paketea eta garaikurra Espainian erakusketa eskubideak dituen enpresa banatzaile / inportatzaileari edo filma inskribatzen duen enpresa edo ekoizpen etxeari.

Epaimahaiaren Saria Laburmetrai Onenari (Karratu Saila). 600€-ko esku-diru saria, Toon Boom software saria eta garaikurra Espainian erakusketa eskubideak dituen enpresa banatzaile / inportatzaileari edo filma inskribatzen duen enpresa edo ekoizpen etxeari.

Sariak indarreko arautegiak ezartzen dituen atxikitzeetara eta Zinemaldiak ezartzen dituen ordainketa epeetara helduak izango dira.

Epaimahaia eremu zinematografikoko profesionalez osatua egongo da. Beraien esku izango da sariren bat inori ez ematea edota arautegian agertzen ez den ohorezko aipamenaren bat egitea.

Zinemaldiak, zinemaldiaren hurrengo 15 egunetan saritutako filmeen 3 proiektzio egiteko eskubidea izango du.

VI. KOPIEN BIDALKETA ETA ITZULTZEA

Kopien bidalketa eta itzultze gastu **GUZTIAK** parte hartzaileen kontu geratuko dira. Inskripzio agirian edo beste dokumentu batean, kopiak nora itzuli beharko diren eta garraiolari baten kontua erantsi beharko da. Garraiolari konturik jaso ezean Europar Batasun barruko bidalketa guztiak jasotzean ordaintzeko bidaliko dira eta beste guztiak gure bulegoetan mantenduko ditugu aginduak jaso arte.

Hautaketarako eta Karratu Saileko DVDak,

informazio-materiala eta baita azpitoluak ere Zinemaldiaren artxiboaren parte izatera pasatuko dira eta ez dira itzuliko.

VII. GONBIDAPEN ETA AKREDITAZIOAK

Antolatzaileek Sail Ofizialeko luzemetrai eta laburmetrai bakoitzaren zuzendari, ekoizle, edo ordezkari bat gonbidatu dezakete.

VIII. ARAUTEGIAREN ONARPENA

ANIMABASAURI - ANIMABASQUEn parte hartzeak, arautegi honen atal guztien onarpena ekartzen du eta baita antolatzaileek edozein arazoren aurrean har dezaketen erabakiarekin ados egotea ere.

Edozein arazo izanik, antolatzaileek arautegi honen gaztelaniazko bertsioa kontutan izanik konponduko dute.

IX. PARTEHARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Inskribatuak eta hautatuak izan diren filmak ezin izango dira Zinemaldiaren programatik kendu.

**Basauri – Bizkaiko Nazioarteko Animazio
Zinemaldiaren Erakundea**



IZENA EMATEKO ORRIA / FICHA DE INSCRIPCIÓN / ENTRY FORM
Azken eguna **2010/01/15** | Fecha límite **15/01/2010** | Deadline **01/15/2010**

ZEIN SAILERAKO EMATEN DUZU IZENA / SECCIÓN A LA QUE SE INSCRIBE / SECTION YOU ARE APPLYING FOR:

IZENBURUA / TÍTULO / TITLE:

ZUZENDARIA / DIRECTOR:

EKOIZLEA / PRODUCTOR / PRODUCER:

GIDOIA / GUIÓN / SCRIPT:

MUSIKA / MÚSICA / MUSIC:

HIZKUNTZA / IDIOMA / LANGUAGE:

NAZIONALITATEA / NACIONALIDAD / NATIONALITY:

IRAUPENA / DURACIÓN / RUNNING TIME:

FORMATUA / FORMATO / FORMAT:

EKOIZLEA / PRODUCTORA / PRODUCTION COMPANY (HELBIDEA / DIRECCIÓN / ADDRESS - TEL.)

EKOIZPEN HERRIALDEA ETA DATA / PAÍS Y FECHA DE PRODUCCIÓN / COUNTRY AND DATE OF PRODUCTION:

BANATZAILEA / DISTRIBUIDOR / DISTRIBUTOR (HELBIDEA / DIRECCIÓN / ADDRESS - TEL.)

NAZIOARTEKO SALMENTAK / VENTAS INTERNACIONALES / WORLDSALES:

* Erantsi (nahitaezkoa): SINOPSIS, DOSSIERRA, ZUZENDARIAREN BIOFILMOGRAFIA ETA ARGAZKIA, BESTE JAIALDIETAN PARTEHARTZE ETA LORTUTAKO SARIAK, FILMAREN BI IRUDI.

* Adjuntar (imprescindible): SINOPSIS, DOSSIER, BIOFILMOGRAFÍA DEL DIRECTOR Y FOTO, PARTICIPACIÓN EN OTROS FESTIVALES Y PREMIOS OBTENIDOS, DOS IMÁGENES DE LA PELÍCULA.

* Please enclose (indispensable): SYNOPSIS, LEAFLET, DIRECTOR'S BIOFILMOGRAPHY AND PHOTOGRAPH, SCREENINGS IN OTHER FESTIVALS AND RECEIVED AWARDS, TWO PICTURES OF THE FILM.

KONTAKTUA / PERSONA DE CONTACTO / CONTACT

ITZULTZEA / DEVOLUCIÓN / RETURN ADDRESS

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS / NAME AND SURNAME:

ENPRESA / EMPRESA / COMPANY:

HELBIDEA / DIRECCIÓN / ADDRESS:

TELEFONOA - FAX / TELÉFONO - FAX / TELEPHONE - FAX

POSTA ELEKTRONIKOA / E-MAIL:

WEB GUNEA / PÁGINA WEB / WEBSITE:

IZENA EMATEN DUEN PERTSONAK EKOIZTETXEAREN FILMA INSKRIBITZEKO BAIMENA DUELA ETA ARAUDIA ONARTZEN DUELA AITORTZEN DU

LA PERSONA QUE INSCRIBE LA PELÍCULA DECLARA ESTAR AUTORIZADA POR LA EMPRESA PRODUCTORA A PRESTAR LA COPIA DEL FILME Y ACEPTAR LAS NORMAS DEL FESTIVAL

IN ORDER TO PARTICIPATE, YOU MUST SIGN BELOW INDICATING THAT YOU ARE AUTHORIZED BY THE PRODUCER OF THE FILM TO ENTER IT IN THE FESTIVAL AND THAT YOU ACCEPT THE RULES

DATA, SINADURA ETA ZIGILUA / FECHA, FIRMA Y SELLO / DATE, SIGNATURE AND SEAL